



# OSATEK SOZIETATE PUBLIKOAREN ESTATUTUAK

2011ko otsailean eguneratutako bertsioa

Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saileko sozietate publikoa, Osakidetzari atxikia, (ekainaren 9ko 159/1992 Dekretuaren bidez eratua).

Osakidetzaren Osasun Zerbitzuen erakundea (azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua).

## OSATEK SOZIETATE PUBLIKOAREN ESTATUTUAK

2011ko otsailean eguneratutako bertsioa

Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saileko sozietate publikoa, Osakidetzari atxikia, (ekainaren 9ko 159/1992 Dekretuaren bidez eratua). Osakidetzaren Osasun Zerbitzuen erakundea (azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua).

### I. KAPITULUA

#### IZENA, EGOITZA, XEDEA ETA IRAUPENA

**1. artikulua-** "OSATEK S.A." deritzon izaera anonimoko sozietate publikoa eratu da, eta haren bazkide bakarra OSAKIDETZA da. Sortu den Sozietate Publikoa Osakidetzari atxikia geratuko da.

Osatek, S.A. Sozietate Publikoak, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 24.6 artikuluan ezarritakoa betetzeko, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta organo autonomoen eta bere mendeko beste erakunde publikoen bitarteko instrumental propioaren eta zerbitzu teknikoaren izaera du.

Sozietatearen kapital guztia titulartasun publikokoa da eta Sozietateak bere jardueraren zati handiena bitarteko propioa edo zerbitzu teknikoa den entitateekin egingo du.

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailek eta sozietatea bitarteko propietzat eta zerbitzu teknikotzat duten gainerako erakundeek beren helburu sozialarekin egindako jardunak, zerbitzuak eta beste edozein jardun egiteko agindua eman diezaiokete Sozietateari, betiere horrek administrazio-ahalmenak gauzatzea ez badakar.

Sailak edo erakundeak, dagokion kudeaketa-aginduaren bitartez, agindutako lanak egin beharko ditu sozietateak, betiere agindua eman duenak bere kasa ezarritako jarraibideen arabera.

Kudeaketa-agindu horiek instrumentalak dira, kontratuz kanpokoak, eta, hortaz, ondorio guztietarako, barnekoak eta mendekoak dira. Sozietateak nahitaez bete beharko ditu, eta sozietatea atxikita dagoen Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailaren arau organikoek adierazitako organoak nahikotasun ekonomiko-finantzarioaren irizpideari jarraiki ezarritako tarifak aintzat hartuta ordainduko dira, sozietatea bitarteko propietzat eta zerbitzu teknikotzat duten gainerako erakundeen parte-hartzearekin.

Bitarteko instrumental propioa eta zerbitzu teknikoa den aldetik sozietateari aginduko zaizkion nahitaezko jardunak proiektu, memoria edo bestelako dokumentu teknikoetan zehaztuko dira, kasuak kasu, eta dagokien aurrekontuan balioetsiko dira, ezarritako tarifei jarraiki.

Bitarteko instrumental propioa eta zerbitzu teknikoak denez, Osatek, S.A. Sozietate Publikoak ezin izango du parte hartu bitarteko propietzat duten erakundeek deitutako lizitazio publikoetan; nolahi ere, lizitatuak bat ere agertzen ez bada, lizitazioaren xede den prestazioa gauzatzeko agindua eman diezaiokete.

**2. artikulua-** Sozietatearen helbidea eta lege-ordezkaritza hau da: Bizkaiko Plaza eraikina, Urkixo zumarkalea, 36 - 5. solairua - 48011 Bilbo (Bizkaia). Administrazio Kontseiluak, beti ere Sozietatearen jardunbide egokirako beharrezkoa dela uste badu, edozein lekutan edozein motatako sukurtsalak, agentziak eta ordezkariak ezartzeko ahalmena du.

**3. artikulua-** Sozietatearen helburu soziala, beste hainbaten artean, euskal osasun eta gizarte sistemari laguntza-zerbitzuak ematea izango da, bereziki, izaera korporatiboa dutenak, horiek goi-mailako teknologiko prozedurak aplikatzea eskatzen dutenean. Horretaz gain, Sozietatearen beste helburua izango da Euskadiko Autonomia Erkidegoko Osasun Politika orokorrean zehazten diren araubide eta baldintzei jarraituz ikertzea eta irakastea.

**4. artikulua-** Hauek dira Sozietatearen funtzioak:

- a) Herritarrei zerbitzua eskainiko die gaixotasunen diagnostikoa eta tratamendua egiteko, goi-mailako teknologiko teknikak, aparatuak eta gailuak erabilia.
- b) Ikerkuntza-programak garatuko ditu eta irakaskuntzak eta ikerkuntzan erakundeekin lankidetzan arituko da.
- c) Goi-mailako teknologiko diagnostiko eta tratamenduen arloan ikerketak egingo ditu, Osasun Administrazioarekin lankidetzan.
- d) Helburuak lortzeko beharrezkoak diren ekintzak garatuko ditu.

**5. artikulua-** Sozietatearen iraupena mugagabea da eta jarduna eratze-egunean bertan hasiko du.

## II. KAPITULUA

### KAPITALA-AKZIOAK

**6. artikulua-** Kapital soziala hiru milioi ehun eta hogeita hiru mila (3.123.000,00 €), eurokoa da; klase bakarreko ehun euroko (100,00€) hogeita hamaika mila berrehun eta hogeita hamar (31.230) akzio izendunetan banatuta. Akzio horiei batetik (1) hogeita hamaika mila berrehun eta hogeita hamar (31.230) arteko (biak barne) zenbakiak korrelatiboak emango zaizkie, guztiak ere harpidetuak eta ordainduak.

**7. artikulua-** Akzio-agiriak Administrazio Kontseiluko buruak eta idazkariak sinatuko dituzte, eta Sozietatearen zigiluak ziztatuko dira.

### III. KAPITULUA

#### SOZIETATEAREN ORGANOAK

**8. artikulua-** Sozietatearen gobernu-organoak Akziodunen Batzar Nagusia, Administrazio Kontseilua eta zuzendari-gerentea.

**9. artikulua-** Akziodunen Batzar Nagusia Osakidetzaren Administrazio Kontseiluak osatua, legearen arabera deituta eta eratuta, Sozietatearen organo soberanoa da, eta haren erabakiak nahitaez bete beharko dira baldin eta balio osoz hartu badira.

**10. artikulua-** Administrazio-kontseiluak osatzen du sozietatearen organo kolegiatua. Bere egitekoa da sozietatea modurik zabalenean kudeatzea eta ordezkatzeko epaiketetan eta horietatik kanpo. Batzar nagusiaren erabakien eta legeek edo estatutuek batzarrari egotz diezazkieten ahalmenen araberrako mugak baino ez ditu izango bere jardunean.

#### **11. artikulua-**

- 1.- Gutxienez bost kontseilarik osatuko dute Administrazio Kontseilua.
- 2.- Batzar Orokorren eskumena da kontseilarien kopurua, izendapena eta kargugabetzea egitea.
- 3.- Sozietatea eratzerakoan izendatutako administratzaileek legedian ezarritako iraupen-aldia izango dute euren karguetan. Beste era batera izendatutako agintealdia Batzar Orokorrek mugatuko du kasuan-kasuan. Hala ere, batzuk zein besteak, epemuga zehatz barik aukera daitezke, edo edozein unetan kendu ditzake euren karguetatik batzar nagusiak.
- 4.- Administrazio Kontseiluak lehendakari bat eta lehendakariorde bat aukeratu ditu bere baitatik; idazkari bat ere aukeratu ahal izango du, nahiz eta kontseilaria ez izan, eta ez du eskubiderik izango botorik emateko Kontseiluak onartzen dituen gaitan. Administrazio Kontseiluaren kideen eta idazkariaren izendapenak Merkataritza Erregistroan inskribatuko dira.
- 5.- Administrazio Kontseiluko kideek ez dute ordainsaririk jasoko euren eginkizunak betetzeagatik, legozkiekeen dieta eta kalteordainen kaltetan izan gabe.

#### **12. artikulua-**

- 1.- Lehendakariak edo Kontseiluko kideen herenek deituta batzartuko da Administrazio Kontseilua, Sozietatearen funtzionamendurako behar den guztietan, eta hiruhilekoan behin gutxienez.
- 2.- Gutxienez berrogeita zortzi ordu lehenago egingo da deialdia, edota presidentek egoki deritzon, premiazko kasuetan, eta aztergaien zerranda finkatu beharko da.
- 3.- Nolanahi ere, ez da deialdia egin beharrik izango, baldin eta kide guztiak bertan egonik, aho batez onartzen bada saioa egitea.

### 13. artikulua-

- 1.- Administrazio Kontseilua behar bezala osatuta geratuko da, bilerara gutxienez kideen erdia eta bat gehiago agertzen badira, aurrez aurre edo ordezkari bidez.
- 2.- Administrazio Kontseiluaren bileretan Sozietateko zuzendari-gerenteak hartuko du parte, ahotsarekin baina botorik gabe, eta baita Sozietateko edozein langilek ere, aholkuak edo argibideak emateko, Kontseiluko buruak hala erabakiz gero.
- 3.- Batzordeburu Administrazio Kontseiluko burua izango da, eta hura kanpoan, gaixorik edo legezko ezintasunen batekin egonez gero, Kontseiluko buruordea edo kiderik zaharrena izango dira batzordeburu.
- 4.- Kontseiluko idazkariaren ardura deialdiak egin eta bilerak prestatzea izango da, eta baita bileren akta jaso, eta horiek eta hartutako erabakiak Kontseiluko buruaren oniritziarekin izenpetzea. Idazkaria kanpoan, gaixorik edo legezko ezintasunen batekin egonez gero, kiderik zaharrena izango dira idazkari.
- 5.- Kontseiluak erabakiak hartuko ditu kideen erabateko gehiengoak hala onetsita, eta boto-berdinketa gertatuz gero, Kontseiluko buruak kalitatezko botoa izango du. Hala ere, Kontseiluaren eskumenen eskuordetzarako, kideen bi herenen baiezkotoak beharko dira.
- 6.- Sozietateak bileren Akta Liburua edukiko du, eta Kontseiluko idazkaria arduratuko da hura gorde eta zaintzeaz.

### 14. artikulua-

- 1.- Administrazio Kontseiluari dagozkio eskumen hauek:
  - a) Batzar Orokorraren erabakiak gauzatzea.
  - b) Zuzendari-gerentea izendatu edo kargutik kentzea; Zuzendaritza Taldeko gainerako kideak kontratatzea; langileen plantilla gauzatzeko eta langileak aukeratu eta ordaintzeko irizpideak proposatzea; eta Sozietatearen langileak kontratatu eta ordainsariak finkatzea.
  - c) Sozietatearen funtzionamendua zuzendu eta aztertzea.
  - d) Epaiaketetan edo epaiaketetatik kanpo Sozietatea erantzukizun osoz ordezkatzeko, ekintza eta kontratu guztietan eta bai pertsona edo entitate publiko edo pribatuen aurrean ere.
  - e) Sozietatearen helburua den jarduerarekin lotutako sozietate edo enpresetan parte hartzeko proposatzea Batzar Orokorrari.
  - f) Sozietatearen helburuak betetzeko beharrezkoak edo egokiak izan daitezkeen ekintzak burutu eta kontratuak izenpetzea; hor sartzen direla, besteak beste, higiezinak erosi eta saltzea. Horretaz gain, eskubide errealak sortu, aldatu eta iraungitzea, hipotekarena eta errentamenduko bereziarena barne izanik.

- g) Sozietatearentzat onuragarriak izan daitezkeen kreditu-eragiketak eta beste eragiketa finantzario batzuk erabakitzea.
- h) Balantzea, galdu-irabazien kontua eta Sozietatearen urteko kudeaketa-txostena formulatzea.
- i) Euskadiko Autonomia Erkidegoko sozietate publikoek nahitaez aplikatu behareko xedapenetan eskatzen diren programak, aurrekontuak eta gainerako dokumentazio ekonomikoa eta finantzarioa gertatzea.
- j) Sozietateari eragiten dioten eskubide, akzio, erreklamazio eta errekurtsuez baliatzerakoan egokiena erabakitzea era, maila eta jurisdikzio guztietako epaitegi eta auzitegietan eta Estatuko, erkidego autonomoetako, probintzietako, udalerrietako eta beste erakunde publiko batzuetako agintari eta bulegoen aurrean; eta batzuei zein besteei uko egitea bidezko irizterakoan. Ildo horretatik, letratu eta prokuradoreen alde ahalmenak egilestea Sozietatea defendatzeko.
- k) Edozein izaeratako ondasun eta eskubideei buruzko gaiak bideratzea. Zuzenbidearen arbitrajera edo ekitatera jotzea prozedura hori beharko luketen gatazka guztietan.

2.- Aurreko lerroaldeetan aipatutako eskumenek ez dituzte mugatzen Administrazio Kontseiluak dituen ahalmenak Sozietatearen negozioak eta interesak gobernatu, zuzendu eta administratzerakoan, baldin eta ez badaude beren-beregi gordeta Akziodunen Batzar Nagusiarentzat.

**15. artikulua-** Administrazio Kontseiluak Sozietatearen Zuzendari Nagusiari edo Kontseilarietako bati eman ahal izango dizkio ordezkotzan Estatutu hauek berari aitortzen dizkieten ahalmen guztiak, legez ordezkotzan eman ezinezkoak direnak salbu.

**16. artikulua-** Kontseiluko Lehendakariak, Kontseilari gisa dagozkion ahalmenez, eta Legeak edo Estatutu hauek aitortzen dizkiotenez gain, eginkizun hauek izango ditu:

- 1.- Etengabe ordezkotuko ditu Sozietatea eta haren Administrazio Kontseilua.
- 2.- Sozietatearen zerbitzu guztiak ikuskatuko ditu eta Sozietatearen jardura zainduko du.
- 3.- Estatutuak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak betetzen direla zainduko du.
- 4.- Administrazio Kontseiluak bere esku utzi litzakeen ahalmenak.

**17. artikulua-**

- 1.- Sozietateko zuzendari-gerentea Administrazio Kontseiluak izendatu eta kargutik kenduko du.
- 2.- Zuzendari-gerentea Administrazio Kontseiluaren bileretara joango da, ahotsarekin baina botorik gabe, eta Kontseiluak ezarritako ordainsariak izango ditu zuzendari-gerenteak.

#### **18. artikulua-**

1.- Administrazio Kontseiluak, Sozietatearen gobernua bermatzeko beharrezkoak diren eskumenak beretzat gorde eta zuzendari-gerenteari aginduko dio Sozietatea ordezkatu, zuzendu eta kudeatzeko, Kontseiluak berak jarritako mugen barruan eta ezarritako irizpideen arabera.

2.- Zuzendari-gerenteak eginkizun hauek izango ditu:

- a) Kontseiluko burua lagundu eta Kontseiluaren erabakiak beteko ditu.
- b) Sozietatearen zerbitzu eta langile guztiak gainbegiratu, zuzendu, sustatu eta ikuskatuko ditu.
- c) Sozietatearen sinadura eramango du.
- d) Gastuak eta ordainketak aginduko ditu.
- e) Edozein egintza eta helegitetan Sozietatea ordezkatu du.
- f) Administrazio Kontseiluari eta Kontseiluko buruari bere lanaren eta Sozietatearen kudeaketari dagozkion arazo guztien berri zehatzak arretaz emango ditu.
- g) Administrazio Kontseiluari eskatuko dio langileak eta Zuzendaritza Taldeko kideak hautatzeko irizpideak zehazteko.
- h) Langileak kontratatu eta kargutik kenduko ditu, eta haien ordainsariak zehaztu.
- i) Administrazio Kontseiluak ematen dizkion ahalmenez baliatuko da eta horiek delegatuko ditu, Kontseiluak baimena eman ondoren.

### **IV. KAPITULUA**

#### **ORGANO AHOLKULARIAK**

#### **19. artikulua-**

1.- Aholku Kontseilu batek lagunduko dio OSATEK S.A. Sozietateari, eta Kontseilu horrek eginkizun hauek izango ditu:

- a) Gobernu organoei aholkua emango die Sozietatearekin lotutako jardueri buruz, hauekin batez ere: asistentzialak, zientifikoak, irakaskuntzakoak eta ikerkuntzakoak.
- b) Egokitzat jotzen dituen proposamenak egingo ditu, Sozietatearen funtzionamendua hobetzeko.

2.- Sozietatearekin lotutako gaietan entzute handiko zazpi profesionalek osatuko dute Aholku Kontseilua, Administrazio Kontseiluak izendatuta.

3.- Aholku Kontseiluko kideek ez dute ordainsaririk jasoko euren eginkizunak betetzeagatik, legozkiekeen dieta eta kalteordainen kaltetan izan gabe.

## V. KAPITULUA

### EKONOMIA ETA FINANTZEN ARAUBIDEA

#### 20. artikulua-

Sozietate hau Euskadiko Autonomia Erkidegoko Sozietate Publikoa den bitartean, bere araubidea hauetara egokituko da: Euskadiko Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorreko araudira, estatutu hauetara, 1951ko uztailaren 17ko Legea, uztailaren 25eko 19/1.989 Legea, eta Sozietate Anonimoen Lege Araubideko gainontzeko antolaketa xedapenetara.

#### 21. artikulua-

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Sozietate Publikoa den bitartean, derrigorrez eraman beharreko ekonomia- eta kontabilitate-arloko beste agiriez gain, Administrazio Kontseiluak, urte bakoitzeko abenduaren 31ko erreferentziaz eta Sozietatearen ekitaldia itxi zenetik hasi eta 3 hilabeteko epean, hauek egingo ditu: Balantzea, galdu-irabazien kontua, irabazien banaketarako proposamena eta Sozietatearen eragiketen azalpen-memoria.

## VI. KAPITULUA

### SOZIETATERAEN DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

#### 22. artikulua-

1951ko uztailaren 17ko Sozietate Anonimoen Legean eta Sozietateak egokitu eta eraberritzeko uztailaren 25eko 19/1.989 Legean jasotako arrazoiengatik desegingo da Sozietatea.

#### 23. artikulua-

Sozietatearen likidazioan kontuan hartuko dira 1951ko uztailaren 17ko Sozietate Anonimoen Legean eta Sozietateak egokitu eta eraberritzeko uztailaren 25eko 19/1.989 Legean agertzen diren arauak.

-----